

203-223 EREDUAK. ORDAINKETA ZATIKATUAK.

OHIKO GALDERAK.

AURKIBIDEA

1. [Araudia](#)
2. [Zer entitate behartuta daude ordainketa zatikatuak egitera?](#)
3. [Ondare sozietateak ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?](#)
4. [Partzialki salbuetsitako entitateak ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?](#)
5. [Zer entitate ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?](#)
6. [Higiezin errentamenduko jardura kualifikatundun entitateen araubide berezia hautatu duten entitateek eta, aldi berean, mikroenpresa edo enpresa txiki moduan aintzatesteko beharkizunak betetzen dituztenek, ordainketa zatikatuak egin behar dituzte?](#)
7. [Zer zergalditako magnitudeak kontuan hartu behar dira, ordainketa zatikatuak egin behar ote diren erabakitzeko?](#)
8. [Araudi komunari lotutako entitateek 203 edo 223 eredu aurkeztu behar dute?](#)
9. [Gipuzkoako araudiari lotutako entitateek zer eredu erabiliko dute ordainketa zatikatuak aurkezteko?](#)
10. [Nola aurkeztu behar dira 203 eta 223 ereduak?](#)
11. [Zer epetan aurkeztu behar dira ordainketa zatikatuak?](#)
12. [Ordainketa zatikaturik aurkeztu behar al da, emaitza negatiboa edo zero ateratzen bada?](#)
13. [Nola kalkulatu da ordainketa zatikatua?](#)
14. [Ordainketa zatikatuaren kalkularen adibidea, entitatearen zergaldia urte naturalarekin bat datorrenean.](#)
15. [Ordainketa zatikatuaren kalkularen adibidea, entitatearen zergaldia bat ez datorrenean urte naturalarekin.](#)
16. [Aldi baterako enpresa elkartearen eta ekonomia intereseko taldeen ordainketa zatikatua \(ABEE, EIT\)](#)
17. [\(n\) ekitaldian eratzen den enpresa behartuta al dago \(n\) ekitaldiko urrian ordainketa zatikaturik egitera?](#)
18. [Likidatzen ari diren edo deseginda dauden enpresak ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?](#)
19. [Talde fiskala behartuta al dago ordainketa zatikatuak \(223 eredu\) egitera?](#)
20. [Nor dago behartuta 223 ereduaren jasotako zenbatekoa ordaintzera?](#)

21. [\(n\) urtean eratutako talde kontsolidatu batek ordainketa zatikaturik aurkeztu behar al du?](#)
 22. [\(n-1\) ekitaldian kontsolidazio fiskaleko talde batekoa izan den baina \(n\) ekitaldian taldetik kanpo dagoen X entitatea. Ordainketa zatikatua egin behar al du X entitateak \(n\) ekitaldian?](#)
 23. [\(n-1\) ekitaldian banaka zergapetu den eta \(n\) ekitaldian kontsolidazio fiskaleko talde batean sartzen den X entitatea. Ordainketa zatikatua egin behar al du X entitateak \(n\) ekitaldian?](#)
-

1. Araudia

- 2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarena: 130 bis artikulua (artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu (2019/02/20ko GAO). Aldaketak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu).
- 352/2018 Foru Agindua, uztailaren 4koa (GAO, 2018-07-10koa).

2. Zer entitate behartuta daude ordainketa zatikatuak egitera?

Honako hauek behartuta daude ordainketa zatikatuak egitera, baldin eta emaitza ordaintzekoa bada:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudiari lotuta dauden sozietateen gaineko zergaren zergadunak (besteak beste, merkataritza sozietateak eta talde fiskalak).
- Establezimendu iraunkorrak eta errenta esleipeneko erregimenean dauden entitateak, baldin eta atzerrian eratuta badaude eta Gipuzkoan presentzia badute (ez-egoiliarren zergaren kontura), Gipuzkoako araudiari lotuta daudenean.
- Beste edozein lurralde historikotan (Bizkaia eta Araba) indarrean dagoen araudiari lotuta egon arren Gipuzkoan eragiketa bolumenaren arabera zergapetuta dauden entitateak (ez-egoiliarren zergaren kontura).

3. Ondare sozietateak ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?

Bai, behartuta daude.

4. Partzialki salbuetsitako entitateak ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?

Bai, behartuta daude.

5. Zer entitate ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?

- a) Mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartutako entitateak ez daude behartuta.
- b) Sozietateen gaineko Zergari dagokion 2/2014 Foru Arauko 77. artikuluan aipatzen diren arrisku-kapitaleko entitateak ez daude behartuta.
- c) Sozietateen Foru Arauan jasotako 100eko 1eko edo 100eko 0ko zerga tasa murriztuetan zergapetuta dauden entitateak ez daude behartuta.

6. Higiezin errentamenduko jarduera kualifikatundun entitateen araubide berezia hautatu duten entitateek eta, aldi berean, mikroenpresa edo enpresa txiki moduan aintzatesteko beharkizunak betetzen dituztenek, ordainketa zatikatuak egin behar dituzte?

Bai, mikroenpresa edo enpresa txiki moduan aintzatesteko beharkizunak bete arren ez dituztelako zergak horietarikoak balira bezala ordaintzen, higiezin errentamenduko jarduera kualifikatundun entitateen araubide berezia hautatu dutelako. Hau da, mikroenpresa edo enpresa txikiaren beharkizunak betetzen dituzten entitateen kasuan ordainketa zatikatu aurkezteko obligazio eza eragingarria izan dadin, horiek bete ez ezik, zergak horietarikoak balira bezala ordaindu behar dituzte.

7. Zer zergalditako magnitudeak kontuan hartu behar dira, ordainketa zatikatuak egin behar ote diren erabakitzeke?

Kontuan hartuta ordainketa zatikatu urte bakoitzeko urriaren 1ean indarrean dagoen zergaldiko likidazioaren «aurrerakin» bat dela, mikroenpresatzat eta enpresa txikitzat hartzeko nahiz zerga tasa zehazteko, kontuan hartu behar da zer zergalditako likidazioan egingo den ordainketa zatikatuaren kenkaria. Hau da, (n) urteko urrian aurkeztu beharreko ordainketa zatikatuak kontuan hartu beharko ditu entitatearen (n) urteko zirkunstantziak.

Beraz, 2025an ordainketa zatikatu egin behar ote den zehazteko, entitatea mikroenpresa edo enpresa txikia izan behar da 2025an, eta, horretarako, 2024ko magnitudeak kontuan hartu behar dira.

8. Araudi komunari lotutako entitateek 203 edo 223 eredua aurkeztu behar dute?

Ez.

Entitate horietarako ez dago aldaketarik. Beraz, 202 edo 222 eredua urte natural bakoitzeko apirila, urria eta abenduaren lehendabiziko 20 egun naturaletan aurkeztuko dute. (533/2016 Foru Agindua, azaroaren 16koa,

Araudi komunari lotutako zergadunen sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatuak egiteko 202 eta 222 ereduak onartzen dituen).

9. Gipuzkoako araudiari lotutako entitateek zer eredu erabiliko dute ordainketa zatikatuak aurkezteko?

203 eredu banakako tributazioan eta 223 eredu tributazio kontsolidatuan.

10. Nola aurkeztu behar dira 203 eta 223 ereduak?

203 eta 223 ereduak formatu elektronikoa bakarrik eskuratu daitezke, eta bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Zergabidea plataformaren bidez.

11. Zer epetan aurkeztu behar dira ordainketa zatikatuak?

Urte bakoitzeko urriaren lehendabiziko 25 egun naturaletan aurkeztu behar dira.

12. Ordainketa zatikaturik aurkeztu behar al da, emaitza negatiboa edo zero ateratzen bada?

Ez. Ez daude behartuta ordainketa zatikaturik aurkeztera, ordaintzeko emaitzarik ez dagoenean.

13. Nola kalkulatu da ordainketa zatikatua?

%5eko portzentajea aplikatuko zaio autolikidazio epea urriaren 1ean amaitua duen azken zergaldiko zerga oinarriari, eta emaitza horri kenduko zaizkio zergaldi horretan egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

14. Ordainketa zatikatuaren kalkuluaren adibidea, entitatearen zergaldia urte naturalarekin bat datorrenean.

%5eko portzentajea aplikatuko zaio aurreko lehen zergaldian (n-1) aitortutako sozietateen gaineko zergaren zerga oinarriari, eta zenbateko horri kenduko zaizkio zergaldi horretan (n-1) egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Aurreko lehen zergaldiak urtebetetik behera irauten duenean, zerga oinarria urtebetera eramango da.

15. Ordainketa zatikatuaren kalkuluaren adibidea, entitatearen zergaldia bat ez datorrenean urte naturalarekin.

Honako hauek kontuan hartzen dira: ordainketa zatikatua kalkulatzeko oinarria autolikidazio epea 2025ko urriaren 1ean amaitua duen azken zergaldiko zerga oinarria dela, eta autolikidazio epea zergaldia amaitu

ondorengo 6 hilabeteak igaro eta gero datozen 25 egun naturaletan bukatzen dela:

- 2025ko uztailaren 1ean hasi eta 2026ko ekainaren 30ean amaitzen den ekitaldi batean, ordainketa zatikatuaren oinarria (ordainketa 2025ko urrian egiten du) hauxe da: 2023ko uztailaren 1ean hasi eta 2024ko ekainaren 30ean amaitzen den ekitaldiko zerga oinarria (autolikidazio hori 2025ko urtarrilean aurkeztu da).

Ordainketa zatikatu hori kontuan hartuko da 2027ko urtarrilean aurkeztu duen 2025-2026ko autolikidazioan.

- 2025ko martxoaren 1ean hasi eta 2026ko otsailaren 28an amaitzen den ekitaldi batean, ordainketa zatikatuaren oinarria (2025ko urrian ordainduko du) hauxe da: 2024ko martxoaren 1ean hasi eta 2025ko otsailaren 28an amaitzen den ekitaldiko oinarria (autolikidazio hori 2025ko irailean aurkeztu da).

Ordainketa zatikatu hori kontuan hartuko da 2026ko irailean aurkeztu duen 2025-2026ko autolikidazioan.

Aurreko lehen zergaldiak urtebetetik behera irauten duenean, zerga oinarria urtebeterra eramango da.

16. Aldi baterako enpresa elkartearen eta ekonomia intereseko taldeen ordainketa zatikatua (ABEE, EIT)

Aldi baterako enpresa elkartearen eta ekonomia intereseko taldeen bazkide guztiak lurralde espainiarreko egoiliarak direnean, ez dute ordainketa zatikaturik aurkeztu beharko.

Aldi baterako enpresa elkarteak (ABEE) eta ekonomia intereseko taldeak (EIT) ordainketa zatikatuak egitera behartuta egon litezke, haien kideen eta partaideen artean entitate ez-egoiliarak daudenean. Kasu horietan, ordainketa zatikatua kalkulatzeko, bakarrik kontuan hartuko da ez-egoiliarren partaidetzari dagokion zerga oinarriaren zatia.

17. (n) ekitaldian eratzen den enpresa behartuta al dago (n) ekitaldiko urrian ordainketa zatikaturik egitera?

Ez. 2025an eratzen den enpresa ez dago behartuta 2025ko urrian egiten diren ordainketa zatikatuak aurkeztera.

18. Likidatzen ari diren edo deseginda dauden enpresak ez daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera?

Bai, behartuta daude. Egoera horretan dauden entitateek nortasun juridikoa izaten jarraitzen dute, bai eta zergaren zergadun izaera izaten ere. Horregatik, behartuta daude haren kontura ordainketa zatikatua egitera.

19. Talde fiskala behartuta al dago ordainketa zatikatuak (223 eredua) egitera?

Bakarrik kontsolidazio fiskaleko erregimen bereziak zergapetuta dauden talde fiskalak behartuta daude 223 eredua aurkeztera. Bestelako kasuetan, taldea osatzen duten sozietateak banaka behartuta egongo lirateke, hala badagokio, ordainketa zatikatuak egitera.

20. Nor dago behartuta 223 ereduan jasotako zenbatekoa ordaintzera?

Ordainketa horiek taldea ordezkatzeko duen sozietateak egingo ditu materialki. Izan ere, sozietate horri ezartzen zaio tributazio erregimen horrek berekin dakartzan zerga obligazio material eta formal guztiak betetzeko beharra. Zergapetzeko betebeharra ezartzen zaion unitate ekonomikoa taldea denez, hura osatzen duten entitateek ez dute diru sarrerarik egin beharko banaka.

21. (n) urtean eratutako talde kontsolidatu batek ordainketa zatikaturik aurkeztu behar al du?

Bai. Baldin eta taldean sartutako entitateak lehendik baziren (n-1) urtean, behartuta egongo dira ordainketa zatikatuak aurkeztera, nahiz eta betebeharrak hori talde bateratuak burutu beharko duen.

Taldeak ordaindu behar du taldeko entitateei banaka dagozkien ordainketa zatikatu batura. Kalkulu hori ez dator bat zerga-oinarrien baturarekin, negatiboak egon daitezkeelako eta zatika ordaintzea zero izango litzatekeelako. Gainera, ordainketa zatikatuak batu behar direnez, 223 eredua betetzen denean, zerga-oinarri positiboak bakarrik batu beharko dira, zatikako ordainketa indibidualen batura izan dadin.

22. (n-1) ekitaldian kontsolidazio fiskaleko talde batekoa izan den baina (n) ekitaldian taldetik kanpo dagoen X entitatea. Ordainketa zatikatua egin behar al du X entitateak (n) ekitaldian?

Bai.

Nola kalkulatu du ordainketa zatikatua X entitateak?

Kontuan hartu beharreko kalkulu oinarria banaka zergapetuz gero entitateari egokituko litzaiokeena izango da, hau da, kontuan hartuko da (n-1) ekitaldiko 200 ereduan jasotako zerga oinarria.

¿Nola kalkulatu da taldearen ordainketa zatikatua?

Zerga oinarri kontsolidatutik kendu beharko litzateke X entitateak zerga oinarri horri egindako ekarpena.

23. (n-1) ekitaldian banaka zergapetu den eta (n) ekitaldian kontsolidazio fiskaleko talde batean sartzen den X entitatea. Ordainketa zatikatua egin behar al du X entitateak (n) ekitaldian?



Ez. Ordainketa zatikatua talde kontsolidatuak egin behar du, 223 eredua erabilita.

Ordainketa zatikatua kalkulatzeko zerga oinarria aurkeztu den azken aitortopenean ($[n-1]$ urteko 220 eredua) taldeak aitortutako oinarria izango da, eta hari batuko zaio haren banakako azken aitortopenean ($[n-1]$ urteko 200 eredua) sartutako entitateak aitortutako oinarria. Era berean, kontuan hartu beharreko atxikipenak taldeak jasandakoak eta banakako entitateak ($n-1$) urtean jasandakoak izango dira.